

MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

ASPAÑIF ELKARTEA

Patakon eta Ane Pirata, lore-sorta handi bat hartuta, Mertxeren etxera hurbildu dira gaur, jaio berri den Nile txikia ezagutzera.



BIZIPOZA

elkarlanean





EBAKUNTZA BAT BAINO GEHIAGO
EGINGO DIZKIOTE, PIXKANAKA EZPAINA
ETA AHOSABAIA OSATZEN
LAGUNTZEKO.



EBAKUNTZA BEZAIN GARRANTZITSUA
OMEN DA ERREHABILITAZIOA.
LOGOPEDAREKIN GOGOR LAN EGIN
BEHAR DA, AHOSKATZEN IKASTEKO,
MINGAINA KOKATZEN IKASTEKO...



ORTODONTISTARENGANA ERE
BUELTA DEZENTE EMAN BEHARKO DITUGU,
AHOKO ETA HORTZETAKO ARAZOAK
KONPONTZEKO.



JATEA ERE
EZ DA ERRAZA
IZANGO...





ASPAÑIF

Erbi ezpaindun edota ahosabai hautsidun haurren gurasoek osatzen dute nagusiki, baina baita sendagile espezialistek (zirujauak, logopedak, ortodontistak...) edota gaitzak hartutako pertsonak ere. Estatistiken arabera, mila haur ingurutik bat jaiotzen da arazo horrekin.



Elkartearen helburu nagusia familiei informazioa eta laguntza eskaintzea da, gaitzaren tratamenduaz, horren ondorioez eta lagungarri izan daitezkeen gizarte baliabideez.

Ebakuntzak bezain garrantzitsua da ondorengo errehabilitazioa, eta maiz ez da baliabide publikorik izaten horietarako.



Gaitzak sortutako arazoez eta trabez aparte, erbi ezpaina edota ahosabai hautsia duten haurrek jendartean arazoak izan ditzakete. Batzuetan kostatu egiten zaie besteekin harremanak eta autoestimua arazoak ere gerta daitezke. Hori ere alor garrantzitsua da.

HARREMANAK
Koskojales kalea, 7. 48810, Alonsotegi, Bizkaia.
www.aspanif.es
aspanif@gmail.com